

PENTSAMENDUAK IRAKURTZEKO GAITASUNA

Osagaiak:

- Olagarro baten tinta beltza
- Arrano baten burmuinaren odola
- Ehunzango baten hanka guztiak
- Suge baten organoak eta mihia
- Arratoi edo sagu baten gernua

Ukendua nola egin:

Laino edo egun hodeitsu batean, aurreko osagaiak prestatuta eta landuak daudenean, hitz magiko hauek esan:

Nahastu-nahastu
Ukendua erraztu
Hodeiak eratu
Eta euria ugaritu

Hurrengo arratsaldean, itsasontziz, itsaso barnerantz joan eta sare batez olagarro bat harrapatzen saiatu, eta bere ipurdi zuloan kaxa edo botilatxo bat ongi kokatu edo itsatsi. Hau eginda, olagarroaren hanka bat hartu eta miazkatu edo murtxikatu ipurdi zulotik tinta beltza atera dezan.

Arranoaren burmuinaren odola lortzeko, berriz, eskopeta batez tiro eginez arranoa zauritu, baina ez hil. Ondoren, labana batez bere burua gutxika-gutxika ireki eta burmuina atera. Gero pote bezalako bat hartu eta murtxikatu, ondoren odola potean sartu.

Ehunzangoaren hankak lortzea erraza da, intsektu hau aurkitu, hartu eta pixkanaka hortzekin hankak ateratzen joan. Azkenik kutxa batean hankak sartu. Ehunzangoarekin bezala, suge bat izanda, hortzez edo eskuez (hau da, edozein tresnarik erabili gabe), honen organoak atera, eta mihia, nahiago baduzu laban batez, moztu bederatzi zati berdinetan.

Azkenik, arratoi edo sagu bat aurkitutakoan nahiago duzun moduan bere gernua lortu. Azkeneko hau lortzeko modurik errazena bere gernu zuloa miazkatzea da eta... Ez izan beldur!

Ukendua nola erabili:

Osagaien elementu guztiak izandakoan eta aurreko hitz magikoak esandakoan, ontzi batean material guztiak sartu eta eskuekin bakarrik, bueltak eman, likido egon arte. Hau egitean, ontzia hartu eta ukendua zeure buruan erortzen utzi. Minutu pare batean zu ohartu gabe, buruan zeneukan likidoa desagertuko da eta kea besterik ez da geratuko.

Horrela, zure barnean izen bat aipatu eta horren pentsamendu guztiak jakingo dituzu.
Zorte ona!

Julen Aisa